

GIG 35

PIKOTEKO LUIZIAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,5**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,75**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Pikoteko itsaslabarrak 150 metroko altuera du, eta luizien ondorioz sortutako pilaketa itzela ikus daiteke bertan, duela nahiko gutxi gertatua eta oso ikusgarria.

Segida osatzen duten geruzak ia erabat bertikalean daude, eta kareharriak, tupak eta tamaina dezimetriko turbiditak dira, tartekatuta. Bata bestearen ondoren geruzak irristatuz joatearen ondorioz sortzen dira luiziak, eta faktore hauek eragiten dute geruzak hain erraz irristatzea: okerdura handia izateak, geruzak konpetentzia txikikoak izateak, eta arroka-multzoak zartadurak izateak. Itsaslabarraren goiko aldetik erortzen dira geruzak eta oinean pilatzen dira, eta bloke-kaos itzela sortzen du horrek: 100 metroko altueraraino ere iritsita dago, eta higadurazko fronte itzela du sortua oinean, 300 metro inguruko zabalera eta 20 metrotik gorako altuerakoa.

Itsaslabarraren goi-goiko aldean zartadura bertikal bat dago, NE-SW norabidekoa; 30 metro inguruko garapen bertikala du, eta 3 metro dago irekita. Zartadura horrek babestuta 600 m² inguruko bloke handi bat geratu da itsaslabarrean, eta arriskua dago haren eraginez beste luizi handi bat gertatzekoa.

Luizi horietan eroritako arroka-blokeei esker, harri-koskorrezko hondartza handi bat sortu da itsaslabarraren oinean (GIG 29).

NOLA BERTARATU

Autoa Elorriagako atsedenekuan utzi, eta bidean behera oinez izen bereko begiratokia joanda.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Elorriagako begiratokia (IP E3), edo bestela, itsasotik hurbilduta.



Pikoteko luizien ikuspegi panoramikoa, itsasotik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 558910 m / Y= 4793899 m / Alt.= 56 m



Bloke-pilaketaren goiko aldea gertutik ikusita; 100 metro inguruko altueraraino iritsita dago jada.